



Ainhoa Iturrioz herritarra San Pedro Jaietako kartel lehiaketaren irabazle.- 2016 urteko San Pedro Jaiak badute irudia. Ainhoa Iturrioz herritarrek egindako lana aukeratu du Lasarte-Oriako Udalak aurtengo egitarauaren iragarle izateko. Jesus Zaballos alkateak, Txus Alonso Jaiak batzordeko buruak, Rosa Illarramendi eta Xabier Goitia udal-teknikariak kartelaren aurkezpena egin zuten asteartean. Era berean, Ainhoa Iturrioz lehiaketako irabazleari saria eman zioten. Guztira, alkateak azaldu legez, 22 lanen artean egin behar izan dute hautaketa Jaiak Batzordeko kideek. Erabakia hartzeko gainera, Manuel Lekuona kultur etxeke eta Gaztelekuko postontzietan edo udalaren web orriaren bitartez jasotako iritziak kontuan izan dituzte. Era honetara, Ainhoa Iturrioz herritarrek eskuratu du 600 euroko saria. Ainhoa Iturrioz herritarrek agerraldian aipatu zuenez, lehenengo aldia da lehiaketara aurkezten dena. Kartelean jaietako gauza garrantzitsuenak irudikatzen saiatu dela azpimarratu zuen herritarrek.

3 LAB Borroka astea prekarietatearen aurka

LAB sindikatuak hainbat ekintza antolatu ditu aste honetan Euskal Herriak jasaten duen krisi ekonomikoa eta langileen lan baldintza prekarioak salatzen. Astelehenera zehar, elkarretaratzeak eta hitzaldiak izan dira Buruntzaldeko herrietan. Gaur eskualdeko manifestazioa izango da, 19:30ean, Lasarte-Orian.

4 AGENDA 21 Energia aurrezteko iradokizunak Udalari

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako LH5 eta 6 mailako gazteek haien ikastetxeetan eta Lasarte-Orian energia nola aurrezteko aztertu dute ikasturtearen zehar, Agenda 21 ekimenaren eskutik. Asteazkenean egin zen Udaltzatza berezian ikasleek Jesus Zaballos alkateari lanketaren berri eman eta proposamenak egin zituzten.



5 KULTURA Antzerkia eta dantzaz gozatzeko hamabost egun

Kukuka antzerki eta dantza eskolak ikasturteari amaiera emateko 14. Antzerki eta Dantza astea antolatu du. 500 bat ikasleek urtearen zehar ikasitakoa erakutsi ahal izango dute Manuel Lekuona kultur etxeke oholtzan. Hamabostaldia hasiera emateko ekainaren 6an, astelehenera festa izango da Okendo plazan.

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus
943 36 46 00

Etarte bidea, 9 (Zubieta) - 20170 Usurbil

AURREMATRIKULA
Ekainaren 6tik 17ra

Fabrikazio mekanikoa | Elektrizitate-elektronika | Administrazioa | Produktzio zerbitzu eta mantenimendua | Energia eta ura

**Erdi eta goi-mailako zikloak
A, B eta D ereduak**

Logoak: EUSKAL GOBIERNUA, GIBEL, R

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

38-60 neurriak

Neure kabuz



Unai Muñoa

Zorionak Landaberri!

Aurten berrogeita hamar urte bete aditu herriko ikastolak. Inolako zalan-tza izpirik gabe, Lasarte-Oria euskaldun-tze bidean izan duen eragina ikaragarria izan da, eta gaur egun dugun osasunaren eragile nagusienetako bat ere bada, beste hainbat eragileren artean. Beraz, ezer baino lehen, eskerrak eta zorionak bidali nahi dizkiet bertan lanean aritu diren eta dabilzan irakasleei, gurasoei, ikasleei, atezainei... (ospakizunetan ez badaude ere, berdin deritzot herriko gainontzeko ikastetxeen gainean)

Baina zeintzuk dira etorkizunerako erronkak? Nolako ikastola ospatuko dugu berrogeita hamar urte barru? Etorkizunak hartuko al du iraganaren lekukoa? Iritzi artikulu honetan galderak gehiago ditut erantzunak baino, hausnarketa sakon bat eskatzen duen gaia baita hau.

Ikastola omentzen badugu ere, ikastetxe publikoa da, horrek esan nahi duen guztiarekin. Garai bateko instituzio ofizialen onespenean gabe sortu zena, egungo instituzioen esku dago orain, eta alderaketak balio ez badu ere, eragin handia izango du horrek etorkizuneko proiektu bati begira. Nork emango dio forma eta mamia gure seme-alabak heziko dituen ikastetxeari? Goi mailako politikari burokratikoek? Zozketa baten ondorioz aukeratutako irakasle talde batek? Gure izaera politiko-soziala onartzen ez duen estatu batek?

Hezkuntza politizatu beharreko gaia dela deritzot. Gure seme-alabak nola eta zertarako heziko ditugun, ikastolak herriarekin zein harreman mota izan behar duen, guraso elkartearen funtzioak zeintzuk izan behar duten, erabili beharreko hizkuntza politika estrategikoak zeintzuk diren... Askok dira zehaztu beharreko gakoak, eta ez badugu gaia mahai gaineratzen, ez badugu hezkuntza sistema egungo beharretara egokitzuten, ez bagara prozesu horretan aktibatzen... Noren esku geratuko dira erabakiak?


Aitortzen dut iragana ilusio handiz ospatzen dudala, eta bai eta eskertu ere gaur arterainoko bidea egin dutenen ahalegina eta lortutako emaitzak, baina balio beza urtemuga honek nolako ikastetxeak nahi ditugun herrian eztabaidatzeko, adosteko eta erakitzeko. Hori bai, denon artean eta denontzat.

Zorion agurrak



Maitane

Zorionak bihurri! Oso ondo pasa zure egunean! Muxu erraldoi bat familiaren partez.



Nahia

Zorionak aitatxo, amaitxo eta zure ahizparen partetik.



Hugo

Zorionak Hugo! Hiru urte zurekin barre egiten. Muxutxoak familia guztiaren partetik!



Xuban

Zorionak pirata!!! Egun ona izan dezazula eta gogoratu, Urbarteko kuadrilarentzako merendola zure kontura!



Izan

Zorionak Izan! 7 muxu potolo familiaren partez. Ondo pasa dezazula zure egunean!



Roman eta Mari

Zorionak 50. ure hauengatik, eta mila esker zareten bezalakoak izateagatik. Maite zaituztegu. Ondo pasa dezazula alabak, suhiak eta biloba Zuriñek.



Idoia

Zorionak Idoia. Muxu haundi,haundi bat lagun partez!



Ane

Zorionak 12 urteko gure etxeko gazteenari. gurasoak, Xabier eta Josu.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Apartamentoa alokatzen da Cala de Finestrat-en (Alacant). Bi gela, egongela, sukaldea, bi komun eta terrazarekin. Horretaz gain, igerilekua eta padel pistarako sarrera. Hondartza 200 metrora gertatzen da. Informazio gehiagorako, 667 731 456.
- Mobil home bat alokatzen dugu Landetan uztailaren bigarren hamabostaldian (17-31) sei pertsonentzat egokia. Igerileku klimatizatua (sauna eta jacuzziarekin) eta kanpoan igerilekuak tobogan eta uretako jolasekin. Aste bakarra edo hamabostaldia alokatzen da. 943 369 231.

Salerosketa

- Xbox 360a, hainbat joku eta bi mando salgai. Prezioa negoziagarria. 616 284 801.

Lan-eskaria

- Adineko pertsonak, zein umeak zaindu, ospi-

- talean zaintza gauak egin edo etxeko lanak egiteko prest nago. Asteburu eta jaiegunetan ere lan egingo nuke. Piedad, 632 754 243.
- Gizon edadetuak zaindu, kalera lagundu, ospitalean zaintza egin edo baserri lanak egiteko mutila eskaintzen da. 618 342 007.
- Atariak, bulegoak edota etxeak garbitzen egin nahi nuke lan. Nagusiak ere zainduko nituzke. Elena 673 25 65 66
- Etxeko lanak egiten lan egin nahiko nuke. Externa, interna edo orduka. Paperak ditut. Lanean hasteko prest. 632 221 913.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest. 943 404 015/606 661 048

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Alex Felipe Zabaleta, maiatzaren 24an.



Heriotzak

- Maria Miron Gutierrez, maiatzaren 28an, 96 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 9:00-22:00

Ostirala, 03 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Larunbata, 04 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 05 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 06 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 07 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 08 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 09 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak


Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal eskalategia	943 361621
Munterri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidor Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

LAB



Astlehenean, Lasarte-Oriako udaletxe zahar aurrean bildu ziren LABeko lagunak. Gaur eskualdeko manifestazioa izango da.

Prekarietate egoeraren aurka

Gaur eskualdeko manifestazioa izango da Lasarte-Orian

Ekintzaz jositako astea prestatu du Buruntzaldeko LAB sindikatuak, "langileek euren egunerokotasunean jasaten duten prekarietate egoera" salatu asmoz. Lasarte-Orian, esate baterako, astlehenean elkarretaratzea izan zen udaletxe zahararen parean; gaur manifestazioa izango da, Okendo plazatik 19:30ean abiatuta.

TXINTXARRI

Langileen egoera prekarioa salatzeke helburuarekin, ekintzaz jositako Borroka Astea antolatu du Buruntzaldeko LAB sindikatuak.

Astlehenean elkarretaratzea egin zen Lasarte-Orian, udaletxe zahararen parean. Horrez gain, Hernanin eta Usurbilen ere elkartu ziren.

Atzo Hernaniko Biteri kultur etxean, Ernaik, Bilgune Feministak, Sortuk eta LABek mahai ingurua egin zuten.

Amaitzeko, gaur beste ekintza pare bat egingo dituzte. Goizeko hamarretan kotxe karabana itongo da Usurbilgo

Ingemarretik abiatuta. Arratsaldean berriz, 19:30ean hasita, Buruntzaldea mailako manifestazioa abiatuko da Okendo plazatik.

"Ekimenetan parte hartzea deitzen dugu jendeareta, bai eta hemendik aurrerakoetan ere", aipatu zuten LABeko kideek.

"Nazkatuta gaude"

Langileek egunerokotasunean bizi duten egoera prekarioa salatzen du LABek: "Lantokietan bizi dugunak ez du itxura onik, eta ez hoberantz egingo duenaren joerarik ere; langileria osoa barnebiltzen du prekarietatearen sareak, hasi ETTetatik, lanaldi partzialetatik, soldata

baxuetatik, EREetatik... Euskal Herriko herrialde guztietan hamaika dira hori ageriko egiten duten adibideak, eta nazkatuta gaude".

"Botere ekonomikoak, patronalak eta eserleku erositant dauden hainbatek egoera hau iraunaraztea besterik ez dute buruan, langileria prekarizatu eta sumiso baten gainean, eredu kapitalista-patriarkal hau mantentzeko asmoz", gaineratzen du.

Horren aurrean, LABek nabarmentzen du badagoela "zer egina", eta langileriak ezin duela "besoak gurutzatuta" geratu. "Badira borrokarako espazioak, eta berriak eraiki behar badira, eraiki beharko dira, norbere baitatik, lantokietatik, kaletik...hasita, eskuz esku, elkarlanean jorratuz, borrokatuz eta bideak batuz".

Sindikatuak azpimarratu duenez, "borroka" da "lanaren eta aberastasunaren banaketa" lortzeko egin beharrekoa.



XUMELA KORUA

Anoetako jaietan kantuan

Xumela korua pasa den igandean Anoeta herriko kantujiran izan zen. Lasarte-Oriako taldearen bizipoza herriko mugetatik kanpo ezaguna egiten ari da eta gonbidatu gisa abestu zuen Anoetako jaietan.

Xumela koruak, Anoetako Musika Eskolako haur, gazte eta helduak izan zituen lagun. Kantu alaiak eskaini zituzten Txapas zuzendariaren eskusoinuaren erritmoari jarraituz.

Hurrengo hitzordua Zabaletako jaietan dute Xumelako kideek. Igandeko bazkari herrikoien ostean kantua festa egingo dute eta herritarrek gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

AISIA

Arcachonera irteera

2004 eta 2005 urteetan jaiotako Gazte Klubeko kideek eta Kuadrillategiko gazteek ekainaren 23an Arcachonera ur parkeaz gozatzeko aukera izango dute.

Goizeko 8:30ean Hipodromoko zubitik aterako da autobusa eta arratsaldeko 20:30ean bueltatuko da Lasarte-Oriara.

Irteerak 43 euro balio ditu. Ttakuneko bazkideek, aldiz, 40 euro ordainduko dituzte.

Izena ematea ekainaren 17a baino lehen egin behar da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, plazak mugatuak dira eta erreserba izena ematea eta ordainketa ordenaren arabera izango da.

MUNTERI-AEK

Yoga eta euskara uztartuz

Munterri-AEK euskaltegiko kideek yoga saio bereziak egin zituzten maiatzaren 24an.

Javier Espina euskaltegiko ikasleak bere ikaskideei eta beste geletakoei bi saio eskaini zizkien; bata goizean, bestea arratsaldean. Euskaltegiko irakasleek jakitera eman dutenez, "primeran moldatu" zen Javier azalpenak ematen eta ikasle zein irakasleentzat "esperientzia polita" izan zen.



Giza eskubideen aldeko trenari kultura erantsi zion Lasarte-Oriak

Lasarte-Oria zeharkatu zuen Ligandean Sarek urtarrilean martxan jarritako trenak; euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldekoak, hain justu. Ekitaldia egin zuten arratsaldean zehar herriko kulturetzako hainbat eragile eta norbanakok, eta kulturaren bagoia gehitu trenari.

Euskotren geltokitik abiatu ziren. Bertan, "Lasarte-Oriako kulturetzako manifestua" delakoa plazaratu zuten. Ekitaldian parte hartu zuten kulturetzako eragileak, espespe-politikak "kulturalki isolatu" egiten dituzten presoak. "Persona orok behar ditu kultur adierazpide desberdinak komunitate baten parte sentitzeko. Deserrotze horrek, orde, gure herrian gero eta ugariagoak diren kultur tal-

deen jardunetik urruntzen ditu, ingurune arrotz batean sentiaraziz", adierazi zuten. "Euskarazko korrespondentzia izateko trabak izan ohi dituzte, berandutzeak, telefonoaren erabilera, ikasketak burutzeko zailtasunak, hedabideen seinalea diferentian jasotzea...", atxiki zuten. "Horregatik guztiagatik, berriazko isolatze eta urruntze hori guztiok berezko dugun giza eskubideen urraketa dela salatu nahi dugu".

Trena, herriko kaleetan barrena

Hainbat geltoki egin zituen trenak. Denera, sei: Pintore eta Pablo Mutiozabal kaleen arteko zabalgunea, Sagardotegi kalea, Elizatze plaza, Brigida plaza, Askatasunaren

parkea eta Okendo plaza. Horieta bakoitzean, Ane Labakak idatzitako bertso bana abestu zuten, Habanera doinuarekin. Eskubide eta preso bana izan zuen ardatz kopletako bakoitzak: 'Ikasteko eskubidea' Pello Eskisabellen kasuan; 'Euskara espespean' Aitzol Iriondorenean; 'Osasun eskubidea' Ibon Fernandez Iradirenean; 'Dispertsiorik ez!' Javi Gallagarenean; 'Biziarteko zigorrik ez!' Santi Arrospiderenean; eta 'Eskubideen urraketa amaiera' Rafa Diezenarenean.

Horrez gain, herriko kulturetzako eragile eta norbanakok ikuskizunak eskaini zituzten: dantzariak, Xumela abesbatza, abeslariak... denetik egon zen. Beno, egiaz zor, "persona garrantzitsu" bat falta zen,



Lasarte-Oriako kultur eragile eta norbanakok eskaini zituzten emanaldiak.

Sareko kideek aipatu zuten: Joxe Mari Agirretxe 'Porrotx'. Gaixaldi baten ondorioz ezin izan zuen ekitaldian egon, baina Okendora bertaratutakoek gogoan eduki zuten, 'Epo i tai tai e' abesti ezagunarekin. Era berean,

Sareko kideek nabarmendu zuten trena ez dela geldituko, "presoen eskubideak urratuak" direlako oraindik. Gaineratu zuten Fresnako espespean gose greban zuden preso denek utzi dutela jada baraualdia.

Energia aurrezteko bideak aztergai

Agenda 21 ekimenaren baitako batzarra egin zuten ikasleek udal ordezkariekin

Agenda 21 ekimenaren baitan ikasturte osoan zehar Landaberri eta Sasoea-Zumaburu ikastetxeetako LH5 eta LH6ko ikasleek energiari buruzko lanketa egin dute. Asteazkenean udalbatzar berezian egin zizkioten energia aurrezteko hainbat eskaera eta proposamen Jesus Zaballos alkateari.

TXINTXARRI

Aurtengoan ere Sasoea-Zumaburu eta Landaberri eskoletan Agenda 21 ekimena burutu dute ikasturte osoan zehar.

Azken urteetan ingurugiroarekin zerikusia duten zenbait gai landu dituzte. Energia berriztagarriak eta mugikortasuna izan dituzte ardatz eta asteazkenean udal ordezkariari hainbat proposamen eta eskaera egin zizkioten.

Argiteria publikoa berri

Kaleko argiteriari dagokionez, farola zaharrak aldatu eta LEDak jartzea eskatu zuten ikasleek, baita gutxiago gastatzeko zenbait lekutan hauek itzaltzea ere.

Jesus Zaballos alkateak esan zien pixkanaka LEDak jarriko direla herri guztian eta zenbait auzotan dagoeneko espaloiairen alde bakarra argizatzen dela gauetan. "Beti ere, inguruko segurtasuna bermatuta dagoela ziurtatuta".

Horretaz gain, aurreratu zuten Biyak Bat egoitzaren aurrean dagoen zebra-bidea argitzeko, mugimendu sentsoa jarriko dela jendea zain dagoenean argia modu automatikoki piztu dadin. Hona-koa esperientzia pilotoa izango da, eta, arrakasta izatekotan, Udalak ez du baztertzeko beste leku batzuetan ere jartzea.

Bestalde, bidegorri sare luzeagoa nahi dute herriko gaztetxoek. Bizikletan euren eskolara joan nahi dutela azpimarratu zuten eta horretarako bidegorriak egitea beharrezkoa dela. Alkateak aipatu zuten Landaberrirako lotura, esaterako, ez dagokiolako udalari egitea, Aldundiari baizik.

"Hala ere proiektua egon badago eta Udalak egin dezakeen bakarra da Aldundiari eskaera luzatu ahalik eta lasterren lanak has ditzan. Udalak, hala ere, Sasoearako bidea jarri beharko luke eta horretaz gain, hainbestetan eskatu zaizkigun bizikletak



Familia argazkia egin zuten ezohiko plenoaren ondoren.

aparkatzeko leku gehiago. Bai herrian zehar baita eskola guztien aurrean ere. Badakigu esparru honetan lana dagoela egiteko".

Jendeak kontsumo baxuko bonbillak erabiltzeko, udalari kanpainak gauzatzea ere beharrezkoa dela uste dute gaztetxoek eta argi gutxiago kontsumitzen duten herritarrei fakturretan murrizketak egitea proposatu zuten.

Zaballosek kanpainak egin direla erantzun zuen baina agian gehiago behar direla. Herritarrei fakturan murrizketak egitearena, soilik uraren kontsumoan egin ahal izango luke. Udalak elektrizitatean eskumenik ez daukala zehaztu zuen.

Eguzki plakak

Horrez gain, ikasleek galdetu zuten ea Udaletxean zergatik

ez dauden eguzki plakak argi kontsumoan aurrezteko.

Aurki Usurbilgo Lanbide eskolako ikasleek udaletxea aztertu eta energia aurrezteko neurri gehiago non aplikatu azalduko dutela erantzun zuen Zaballosek.

Batzarrari amaiera emateko, bertso bat bota zuten gaztetxoek bertaratutako irakasle eta gelakideen laguntzaz.



Kamisetak margotu, birziklatutako materialekin karterak... hainbat eskulan egin zituzten asteartean.



Asteazken arratsaldean, haur eta gazteek jokoetan opariak eskuratu ahal izan zituzten.



'Hotel Transilvania' eta 'Mimokeriak' antzerkiak ikusi ahal izan ziren Antonio Blas plazan.

Zabaleta auzoan giroa berotzen

Asteartean Zabaleta auzoko jaiei hasiera eman zitzaion. Hiru egun hauetan haurrei zuzendutako ekintzak izan dira nagusi.

Asteartean, kamisetak margotu eta eskulanak egin ahal izan zituzten.

Asteazkenean, berriz, jolasez eta antzerkiak gozatu ahal

izan zuten. 'Hotel Transilvania' eta 'Mimokeriak' lanak eskaini zituzten Kukukako gaztetxoek. Atzo, berriz, Tt-kun kultur elkartearen eskutik 'Jolasen altxorra' ekimena burutu zen eta ostean, oparien zozketa izan zen.

Ekintza hauetaz gain, egunero bonba japoniarak izan dira.

Teresa sorginaren etorrera

Gaur arratsaldean Teresa sorgina iritsiko da auzora eta honekin batera asteburuko ekintzei emango zaie hasiera.

Haur eta helduei zuzendutako ekintzak izango dira. Esate baterako, kirol probek gozatu ahaliko da bihar, goiz eta arratsalde.

Antzezleak eta dantzariak oholtzara!

Jaialdi handiarekin emango zaio hasiera Antzerki eta Dantza hamabostaldiari

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek, urtero legez, urtean zehar egindako lana erakutsiko dute ekainaren 6tik 19ra. 57 talde eta 500 ikasle izango dira bi aste hauetan Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzara igoko direnak. Astelehenean egitaraua aurkeztu zen Udal ordezkariarekin batera.

TXINTXARRI

Hamalaugarrenez Kukuka eskolako lagunek Manuel Lekuona Kultur etxea antzerki eta dantza beteko dute. Astelehenean eman ziren jakitera aurtengo edizioaren nondik norakoak. Bertan izan ziren Maite Iglesias Kultura Batzordeburua eta Juan-txi Ugarte kultura teknikaria.

Bi berrikuntza daude aurtengo edizioan. Lehena, hamabostaldiari hasiera emango dion festa da. "Aurten ez da desfile erraldoik egingo. Baina hamabostaldiaren hasieraren berri emateko jaialdia egingo da", azaldu zuen Kontxu lartzak.

Txokolatada eta hainbat emanaldi aurreratu dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, jaialdia Loidi Barren pilotalekuan egingo dela jakitera eman zuten agerraldian.

Eta azken egunean egin ohi zen Dantzaz Blai egunean dago beste berrikuntza. Dantza saioak bi egunetan banatuko dira. Honela, ekainaren 18an, arratsaldean dantza garaikidea izango da. Ekainaren 19an berriz, goizean, euskal dantza eta arratsaldean euskal dantza sorkuntza emanaldiak izango dira.

"Era honetara, euskal dantza eta euskal dantza sorkuntza sailek bakoitzak bere lekua hartzen dute", aipatu zuen Maider Oiartzabalek.

Antzerkia, txikiak eta handiak

Bien bitartean, Landaberi eta Sasoeta ikastetxeko, Zubietako eskola txikiko, gazte eta helduen taldeek haien antzeleran aurkeztuko dituzte.

Ekainaren 7an, LH5 eta Sasoetako LH4 eta LH5 mailako gaztetxeen saioa izango da.



Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideak eta Udal ordezkariak aurtengo edizioko aurkezpenean.

Ostegunean, ekainaren 9an, LH3 eta LH4 mailakoek hartuko dute oholtza. Bi saioak 19:00etan hasiko dira.

Ekainaren 8an, 11n, 12an eta 14an ez da saiorik izango.

Ekainaren 13an, 18:00etan, Landaberi, Sasoeta eta Zubietako ikastetxeetako txikiak haien lanak aurkeztuko dituzte.

Ekainaren 15ean, asteazkenean, DBH 1 eta 2. mailakoek antzerkia ikusi ahaliko da 19:00etan.

Ostegunean, berriz, 18:00etan, LH6 mailakoek bi lan; eta, 21:00etan, gazteen saioa ikusi ahaliko dira.

Ostiraletan, berriz, helduen txanda izango da. Ekainak 10ean, 'Ilargiaren bila' lana eta

ekainaren 17an, 'Itxaroten' lana eskainiko dituzte. Bi saioak 20:00etan izango dira.

Sarrera

Saioetako sarrerek "modu simbolikoan" euro bateko prezioa izango dute. Horiek saioak hasi baino ordu bere lehenago jarriko dira eskuragarri Manuel Lekuonan bertan.

Bertso Paper Lehiaketak baditu irabazleak

Lasarte-Oriako Bertso Paper Lehiaketako sari banaketa egin zen atzo goizean Manuel Lekuona kultur etxean.

Unai Muñoa eta Ane Labaka bertsolariak eta Jon Antxordoki Euskara batzordeburua izan ziren sari banaketa ekitaldian.

Labakak eta Muñoak bertso saio txiki batekin eman zioten hasiera ekitaldiari.

Honetan, amodio kontuak izan ziren nagusi. Lehenik, bertsolarien arteko ika-mika izan zen eta ostean, aretoan

zeuden gazteei eta irakasleei adarra jo zieten bertsolariak.

Sariak

Jarraian, irabazleak jakitera eman ziren.

LH mailan, 5. mailako gazteek eskuratu dituzte sariak. Landaberi ikastolan Haritza Diaz de Guereñu eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxean 'The Shield' ezizeneko bertsoak. Bien artean irabazlea, Haritza izan da. Maialen Aristegi DBH4 mailako ikaslea izan da irabazlea handien mailan.

Aipamen bereziak ere izan dira, guztiak Landaberi ikastolako ikasleek jaso dituzte. LH mailan, LH5 mailako Katixa Izagak, eta, DBH mailan berriz, DBH1 mailako Olatz Castro, Nahia Calle eta Haizea Arbizuk.

Bertsolari harrobia

Aurten Landaberi LH eta DBH mailako ikasleek eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LH mailako gazteek hartu dute parte. Guztira 90 lan aurkeztu dira lehiaketara.



Bertso Paper Lehiaketako saridunak, 'The Shield' taldea falta da.

LHkoek 'Eskolarekin gau bat pasatzera noa...' eta 'Zer dira lagunak zuretzat?' gaiak aukeratu ahal izan dituzte lana

egiteko; DBH ikasleek, aldiz, 'Youtuberra izatea gustatuko litzaidake' eta 'Lehenengo aldiz maitemindu naiz'.

MIKRO IREKIA

"Euskara, ezagutzatik erabilerara"

Lutxo Egi, Egi eta Añorga auzoko esperientzien trukaketa

Lutxo Egiak, Egiako Aitziber Gurutzeagak eta Añorgako Maddi del Campok epe batez **euskara hutsean bizitzearen esperientzia** kontatuko digute. Urteetan Maratoiko antolakuntzan eta Ttakunen aritu den Mari Karmen Ormazabalek gidatuko du solasaldi parte-hartzailea.

Ekainaren 8an, 19:30tik aurrera Jalgi Kafe Antzokian



ISLANDIA

aurora borealak
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

BIDAIA TALDEAN
irteera Lasarte-Oriatik
Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAA BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria
T. 943 373 613 - info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

LABURRAK.-

Aizpea Arroyo, Euskadiko txapeldun

laz egin bezala, Aizpea Arroyo podiumeko maila gorenera aipatu da Euskadiko gimnasia erritmiko txapelketan, senior mailan. Uzta eta mazekin aritu zen: lehenengo eta hirugarren izan zen bi modalitate horietan, hurrenez hurren. Hortaz, sailkapen orokorreko lehenengo postua ere eskuratu zuen. Bestalde, Alazne Gonzalez jubenila ere lehiatu zen Gasteizko Abetxuko kiroldegian jokaturako txapelketan. Mazekin hirugarren postua eskuratu zuen, eta bigarrena zintekin. Sailkapen orokorrean bigarren izan zen Gonzalez, eta zilarrezko domina irabazi zuen jubencil mailan.



Bi herritar UZtrail lasterketan

Pasa den larunbatean jokatu zen UZtrail lasterketan aritu ziren Jose Ramon Mendizabal eta Joseba Iparragirre herritarak. 22 kilometro eta 1.600 metroko desnibel positibo metatuko ibilbidea osatu zuen biek. Iparragirre 68. postuan helmugaratu zuen; kronometroa 3:01:34an geratu zuen. Handik gutxira iritsi zen Mendizabal, 73. postuan hain justu; 3:07:02ko denbora eginenez amaitu zuen proba.



Beltzak errugbi eskolako 16 urtez azpiko taldea bigarren Hernanin, Gipuzkoako txapelketan

Denboraldia bukatu dute ofizialki, baina Beltzak eskolako taldeek errugbiaren gozatzen jarraitzen dute. 16 urtez azpikoek, esaterako, Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Hernanin. 2. izan ziren.

Bestalde, Babyauto Zarautz taldeko aurrelariak osatutako 'Pottolak' taldeak 'Fat Rugby' delako txapelketa bitxia irabazi zuen. Baldintza batzuk bete behar ziren horretan parte hartzeko: jokalariek 90 kilo pisatu behar zituzten gutxienez. Monzonen (Huesca) jokatu zuten txapelketa, iragan asteburuan.

Buruntzaldea IKTko igerilariak primeran Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan

Buruntzaldea IKTko kide Lander Sorozabal, Ainhoa eta Leire Martin, Paula Sevillano, Unai G. Somovilla, Iñaki Arregi, Joane Arzalluz, Aintzane Sarobe, Ane Artola, Paula Cebria eta Unai Rodriguez Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan aritu ziren iragan larunbatean, Gipuzkoako selekzioarekin. Bilbon jokatu zen lehiaketa. Hiru urte, bost zilar eta bi brontze, Espainiako txapelketarako beste gutxieneko bat -Leire Martinek egin zuen, 200 tximeleta proban- eta taldeko sei errekor berri erdietsi zituzten aipatu igerilariak.

Padel txapelketako finalak bihar

Biharko egunean zehar jokaturako dira aurtengo herriko padel txapelketako finalak, Kiroldegi alboko pistan. Emakumezkoen final handia 15:00etan hasiko da, eta 16:30ean gizonezkoena. Goizean zehar berriz, 9:00etatik hasita, 3. eta 4. postuak erabakitzeak eta kontsolaziokoak jokaturako dira. Sariak 18:00etan banatuko dira.

KIROL AGENDA.-

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 3
Mossoren XXX. Oroimenezkoa, final zortzirenak.
Michelingo kirol-gunea, 19:45ean
Viña del Mar - TSST
Michelingo kirol-gunea, 20:45ean
Indaux - Izkiña

Larunbata 4

Udal Kiroldegia, 15:15ean
Kattagorri Insausti - Txoko
Udal Kiroldegia, 16:15ean
Urdaneta HK - Trumoi
Udal Kiroldegia, 17:15ean
Reformas Lagunak - El Punto

SQUASHA

Larunbata 4
Udal Kiroldegia, 15:00etan
Lasarte-Oriako squash txapelketako kontsolazio finala jokaturako da.
Udal Kiroldegia, 16:00etan
3. eta 4. postuak zehazteko partida jokaturako da. Amaitzean, final handia.

MENDI LASTERKETAK

Larunbata 4
Leitza, 8:00etan
Euskal Herriko mendi erronkan ariko dira Iñaki Letamendi eta Javier Olazagoitia herritarak.

OSTADAR SKT.-

Amaiera, festa giroan

Egun osoko ospakizunarekin esan dio agur denboraldiari Ostadarrek

Bukatu du 15/16 denboraldia Ostadar SKTk. Urtero lez, festa giroan; egun osoko ospakizuna izan zen iragan larunbatekoa. Goizean areto-futbol txapelketako finalak jokatu ziren Udal Kiroldegian. Arratsaldean, berriz, Loidi Barren pilotalekua izan zen klubeko arduradun, entrenatzaile eta jokalarien bilgune. Orain, oporrak hartzeko ordua da.



Areto-futbol, saskibalo eta futbol taldeetako jokari jatorrenak sarituak izan ziren.

TXINTXARRI

Ostadarrek, urtero lez, festa handi bat ospatuz amaitu du denboraldia. Aurtengoa berezia izan da, gainera, larunbat osoan zehar luzatu baitzen egitaraua. Goizean areto-futboleko finalak jokatu ziren Kiroldegian; arratsaldean, berriz, Loidi Barren frontoia izan zen festaren erdigune. Kirol-guneak, sari banaketa ekitaldia, Champions Leagueko finala pantaila erraldoian... ez zen ezer falta izan.

Has gaitezen goizeko finalatik. Aurtengo herriko txapelketak badu irabazlea: Izkiña taberna. Txindoki garaitu zuen, 0-3. Golak Ibon Irazustak, Ares Gonzalezek eta Iñaki Lopezek sartu zituzten. Lehenengo zatiko hamabosgarren minutukoa izan zen norgehiagokako jokaldi polemikoena: Izkiñako atezain Ibonek ateko sarea egin, eta aurkariaren ate barruan amaitu zuen baloiak. Txindokiko jokalariek protesta egin zuten, esanez euren atezainari falta egin zitzaizola, baina epaileei ez zitzaizela iruditu eta gola markagailura igo zen.

Bigarren zatian aukera ugari eduki zituen Txindokik, baina Irazustak jaurtiketa denak gelditu zituen. Kontraerasoan, bi gol gehiago sartu zituen Izkiñak eta txapelketa irabazi.

Kontsolazio Liga Reformas Lagunak taldearentzat izan da. 3-2 garaitu zuen Also. Bi partida horien artean, Jalgune elkarreko kideek partidu bat jokatu zuten giro ederrean.

Ondoren, areto-futbol alorrrak antolatuta, bazkaria egin zuten Loidi Barren pilotalekuan; 90 jator inguru egon ziren bertan. Arratsaldean, berriz, txapelketako sariak banatu zituzten. Buenetxea tabernak ohorezko aipamena jaso zuen, urteotan egindako ibilbideagatik.

Arratsaldean, gehiago
Loidi Barren pilotalekuan segitu zuen festak arratsaldean. Antolatzaileek kirol-guneak jarri zituzten kanpoaldean; hainbat gaztetxo aritu ziren jolasean horietan. Beranduxego hasi zen sari banaketa ekitaldia.

Euskararen Maratoiak jaso du aurten Auzolan saria. Aurtengoa 9. edizioa izango da, eta 30 urte beteko ditu egitasmoak. Kirolari Onenaren saria, berriz, Jon Ander Puertas errugbi jokalarientzat izan zen. Ostein, jokari jatorrenak ere igo ziren oholtzara.

Izkiñak irabazi du herriko areto-futbol txapelketaren aurtengo edizioa.



Izkiñak irabazi du herriko areto-futbol txapelketaren aurtengo edizioa.

TRIATLOIA.-

Trinko taldeko kideak, han eta hemen

Gero eta hurbilago dauzkate denboraldiko hitzordu garrantzitsuenak Trinko Lasarte-Oria triatloi taldeko kideek, baina asteotan ez daude geldirik, inondik ere. Pasa den asteburuan bi kide lehiatu ziren.

Donostiako maratoi erdia burutu zuen Andoni Salsamendik. Javi Lopez, berriz, Santurtziko triatloian aritu zen lehiatzen. Maila oso txukuna erakutsi zuten biek.

Lau herritar Zarautzera

Hurrengo asteetako hitzorduetako bat Zarautzko triatloia izango da -ekainaren 11n jokaturako da-. Lau herritar joango dira bertara: Ramon Altuna, Andoni Illarramendi, Imanol Arteaga eta Asier Gorostegi.

Asteon ere badituzte hitzorduak lasarteoriarrek. Ondarroan ariko dira Andoni Salsamendi eta Ramon Altuna; Pili Bodegas, Pasai Donibanen.



Irudian, Andoni Salsamendi. TRINKO

Agenda

Gaurtik igandera, Zabaleta auzoa



Teresa sorginarekin jai!!!

Gaur arratsaldean iritsiko da Teresa sorgina Zabaleta auzora. Honekin batera, haur, zein helduei zuzendutako hamaika ekintza izango dituen asteburuari hasiera emango zaio.

Ostirala 03
18:00etan, antzerkia.
Ondoren, txokolatada.
19:00etan, Teresa sorginaren jai-tsiera txalapartarekin eta pregoia.
19:05ean, dantza herrikoa.
19:05ean, Twister erraldoia.
19:15ean, Dinbi Banda batukada.
19:30ean, Jalguneren emanaldia.
22:00etan, Kukukaren dantza garaikidea.
23:00etan, Gureran eta Iratzar taldeen kontzertua.

Larunbata 04
09:00etan, diana.
11:00etan, Zabaletako 3. sorgin-krosa.

12:00etan, IX. Joxe Migel Aranzadi eskoba txapelketa.
15:30ean, IX. Joxe Migel Aranzadi mus txapelketa.
16:30etik 18:00etara, txirriindulari lasterketak.
18:15ean, herri kirolak umeentzat.
18:30ean, Euskal zumbadantza saioa.
19:30ean, japoniar bonbak.
20:00etan, bertso saioa:
 Ane Labaka, Oihan Iguaran, Unai Gaztelumendi eta Asier Azpiroz.
 Gai jartzaile: Unai Muñoa.
00:00etan, Gazte rock gaua:
 Bihozkada
 Erokomeri

Igandea 05
09:00etan, diana eta auzo garbiketa.
11:00etan, Kukukaren euskal dantza saioa.
11:00etan, Tortilla lehiaketa.
12:00etan, txaranga.
12:15ean, Idoia Etxeberria harrija-sotzailea.
13:15ean, Proba misto nagusia.
14:30ean, herri bazkaria.
17:30ean, kantu festa Xumela abesbatzarekin.
18:00etan, Errebal taldea.
18:30ean, toka txapelketa.
20:30ean, Teresa sorginari agurra eta azken traka.

Lasarte-Oria

Antzerki eta Dantza hamabostaldia

OKENDO PLAZAN,

Astelehena 06, 18:00etan

Antzerki eta Dantza hamabostaldiaren festa egingo da.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 07, 19:00etan

'Ipuin Klasikoen bertsoa'. LH5

'Oraingoan gaiztoek irabaziko dute'.

Sasoeta LH4-5



Osteguna 09, 19:00etan

'Hotel Transilvania'. LH3-4

'Mimokeriak'. LH3

'Ipuin kontari'. LH4

'Sentimenduak eta gu'. Zubieta LH3-4

Ostirala 10, 20:00etan

'Ilargiaren bila'. Helduen taldea.

Hitzaldia

BIYAK BAT ELKARTEA

Astelehena 06, 18:00etan

GuraSOS eta Biyak Bat elkarteak antolatuta, 'Erraustegiaren arriskuak' solasaldia izango da. Elkarteke bazkide eta aitona-amonei zuzendutako saioa.

FURIA BELTZA

Astearte 07, 19:00etan

Hassana Aalia aktibista sahararrak Mendebaldeko Sahara okupatuaren egoerari buruzko hitzaldia eskainiko du.

Mikro irekia

JALGI KAFE ANTZOKIA

Asteazkena 08, 19:30ean

'Euskara, ezagutzatik erabilerara' mikro irekia. Lutxo Egia bilbotarra, Aitziber Gurutzeara egitarra, Maddi Del Campo añorgarra eta Mari Karmen Ormazabal Ttakun Elkarteke kidea izango dira hizlari. Ttakun KEko 25. urteurrenoko ekintza.

Kultura Auzoetara

LA ESPERANZA AUZO ELKARTEKO LOKALA

Astearte 07, 18:00etan

3 eta 7 urte haurrentzako ipuin kontalaria izango da.

ORIAKO KARMENGO AMAREN KAPEREA

Astearte 07, 19:00etan

Udal Musika eskolako ikasleek hainbat doinu eskainiko dituzte.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Gaurtik ekainaren 11ra arte

Brancussi akademiako ikasleen lanak ikusgai izango dira.

Herritarren txokoa

Eskutitza

"Pasa gaitzen liskar errealitate batetik adostasun eta kontsentsu errealitate batera"

Hauxe da GuraSOSek gaia bideratzeko egiten duen proposamena: gaia despolitizatu, gizarteratu, birbideratu, eta guztiok batera osasunaren alde adostea. Foru ordezkari baretze bide bat ireki dezaten eskatzen diote, eta indar politikoei gai honekiko despolitizazio, gizarteratze eta birbideratze prozesuan lagundu dezaten eskatzen diete.

GuraSOS aita-ama, aitona-amona, izeba-osaba mugimendu apolitikoa da, Donostian (Zubietan) egitekoak diren erraustegiak gure seme-alaben osasunari izango duen eraginagatik kezkatuta gaudenak.

Interes politikoa edo ekonomikoak albo batera utziz, ideologia eta mundu ezberdinetako kideen elkarlanetik sortu da GuraSOS, eta gure seme-alaben osasuna babesteak batzen gaitu.

Ez dugu beraien osasunaren aurkako inolako arriskurik onartzen. Horregatik, eta gaur egun instalazio mota hauen kaltegabatasunaren bermerik ez dagoenez, proiektu hau alde batera uztea eskatzen dugu. Zilegi den kezka eta egonezin hau arinkiaz hartzea aita-ama hauenganako begirunerik ez izatea dela uste dugu, bai eta inork ondoan eduki nahi ez duen proiektu hau ondoan nahi ez izateagatik alarmistak deitzea ere.

Gai honi dagokion egungo liskar agertokia eutsiezina dela uste dugu. Argi eta garbi gizarteratu bat denaren muturreko politizazioa bizitzeko ari gara, hau da, hain pertsonala eta transferiezina den osasunaren eragiten duen hondakin kudeaketarena, hain zuzen ere.

Duela gutxi, Imanol Lasa jaunak, foru bozemaileak, irati elkarrizketa batean erraustegiak osasunaren eragin kaltegarriak izango dituela kontsideratzen dituztenak inolako oinarririk gabe hitz egiten dutela aurpegiaratu die.

Adeitasunik gabeko tonu berdinean errauste-

giaren eragin hauei buruz kezkatuta agertu diren medikuei esan die mediku titulua ez dela nahikoa gai honen inguruko iritzia emateko, eta ardura hori ikertzaileei eman behar zaiela. Ohar honen bidez gure eskertza helarazi nahi diegu mediku hauei, gai honekin lotutako ikerketa zientifikoak jaso, ikertu eta bertako datuak gizarteratzean egiten ari diren lan ikaragarriagatik. Beraiei esker, gizartea bere osasunerako garrantzitsuak den informazioa jasotzen ari da.

Lasa jaunak, elkarrizketa berean, erraustegiak herritarren osasunarentzat kaltegarria denaren ebidentzia zientifikorik ez dagoela adierazi du. Baina bera ere ez da zientzialaria, politikoa baizik. Zerk legitimatzen du bera medikuei onartzen ez diena esatera?

Beste alde batetik, EH Bildu eta Podemos-Ahal Dugu-k erraustetaren eraginei buruzko komisio bat sortzeko ekimena aurkeztu dute Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Gure ustez mediku eta ikertzaileak ekimen politikoa hauetan nahastea ez da zilegi. Alderantziz, eztabaida hau despolitizatu eta gizarteratu bueltatzea beharrezkoa dela uste dugu.

Gizarteratu azpiegitura mota honek sor ditzakeen eragin ezagutarazteko nahikoa informazio zehatza eta eztabaidatzeko aukera ez zaiola eskaini pentsatzen dugu. Are gehiago eztabaida lasai bat. Horregatik hain zuzen pasa den maiatzaren 21ean GuraSOSek dibulgazio zientifiko eta elkarrizketa sozialerako jardunaldia antolatu zuen Orona-Idean, gai honi buruzko informazioa jaso, eztabaidatu eta banatzeko helburuarekin.

Jardunaldi honetara Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburua gonbidatu genuen, bai eta Gipuzkoako Osasun Publikoaren Zuzendaritza ere. Sailburuak agenda kontuak direla medio agertzeko ezintasuna adierazi zigun, eta Gipuzkoako Osasun

publikoko Zuzendaritzak ordezkari bat bidaliko zutela ziurtatu zigun. Azkenean, Osasun saileko inor ez zen agertu bertara.

Biodonostiko ikertzaile bat etortzeko ahaleginak ere egin genituen. Gipuzkoako Foru Aldundiak institutu honekin kontratua lotuta du erraustegia martxan jarriko balitz osasunaren gaineko eraginari buruzko ikerketa epidemiologiko bat egiteko. Lasa jaunak egin genituen gestio hauen berri izan behar du, eta alde horretatik, bertako inor zergatik etorri ez zen azaltzea estimatuko genuke.

Jardunaldi honetan Fernando Palaciosen parte hartu zuen, CSICeko ikertzaileak (Centro Superior de Investigaciones Científicas). Palaciosen udalerriatiko hondakin mota berrien erraustetan sortzen diren 20 gai oso arriskutsuak instalazioetan ez direla kontrolatzen adierazi zuen, indarreko arautegiak ez dituelako aurrekusten. Zaharra da arautegia, eta azken aldi honetan ez dela berrikusi adierazi zuen.

Era berean, Palaciosen Europar udal-hondakin balioztatze energetikoan diharduten instalazioen gaineko argitalpen zientifikoaren emaitzen arabera, osasunaren gaineko inpaktuak gertatu ohi direla baieztatu zuen. Hori oinarritzeko Europa eta Ipar Ameriketako unibertsitate eta agentzia publiko desberdinetako ikerketa eta datu andana erabili zituen.

Baina galdera nagusia ez da erraustegiak osasunaren eraginak frogatzen dituzten ikerketak dauden edo ez. Galdera nagusia da ea foru arduradunek kontrakoaren ebidentziarik duten. Hau da, erraustegiaren osasunerako kaltegabatasunaren datuak eta ikerketak badituzte, publiko egin ditzaten eskatzen dugu kontraste, eztabaida eta azterketa publikoak egiteko.

Hamarkada askotan zehar osasun autoritateen ahotik gauza berdina entzun dugu, alegia, ez zela existitzen zantzu zientifikorik erretzea eta minbi-ziaren artean. Edo amiantoarekin. Gaur egun min-

garria da era honetako baieztapenak gogoratzea, baieztapen hauen aztetik saihestu ez diren hildakoak gogoratzea.

Gurasoak, aita-amak eskubide osoa daukagu gure haur eta gaztetxoaren osasunagatik kezkatuta egoteko. Horretarako daukagu aita eta amaren tituluak; gure haur eta gaztetxoaren osasun eta segurtasunari buruz gure iritzia emateko zilegitasun osoa dugu.

Gai hau bideratzeko, GuraSOSek proposamen bat helarazi nahi dio gizarterari, bere manifestuan agertzen den bezala:

1. Gure haurrak eta gaztetxoak babestea.
2. Gaia despolitizatzeko.
3. Eztabaida gizarterari bueltatzea.
4. Informazioa zabaltzea. Osasunari dagokion edozein gaitan bezala, gure haurren osasunerako kaltegarri izan daitekeen edozein ekimena onesteko, aurretik informazio nahikoa jaso behar dugu. (consentimiento informado).
5. Liskar errealitate batetik, adostasun eta kontsentsu errealitate batera pasa nahi dugu, non bermatuko den osasuna arriskuan jarriko ez dela.

Horregatik, gure manifestuan esaten den bezala: osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako, eta prebentzio eta babes printzipioetan oinarrituz, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu.

Foru ordezkari baretze bide bat ireki dezaten eskatzen diegu; obren lizitazio prozesuaren abiadura moteltzearekin hasi dadila eta informazio eta deliberamenduzko bide bat irekitzearekin jarraitu dezala, gai honen gainean akordio batera iristeko asmoz.

Indar politikoei gai honekiko despolitizazio, gizarteratze eta birbideratze prozesuan lagundu dezaten eskatzen diegu; ikerketa komisioaren ekimena bertan behera utziz edota birplanteatuz eta eztabaida gizarteratu eta modu lasai batean eman dadin.

Herritar maitagarriei esker ona

Patxintxi Sariak 2016 antolatu da

Lasarte-Oriako haurrek 65 urte baino gehiago eta haien ztat maitagarri edo goxoa den pertsonari aitortza egiteko aukera izango dute aurten San Pedro Jaietan.

TXINTXARRI

Ttakun Kultur elkarteko Aisia eta Kultura sailek Patxintxi sariak 2016 antolatu dituzte.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Patxintxiak Lasarte-Oriako 65 urte gorako pertsona maitagarri eta goxoak dira.

Hautagaiak

Gaurtik ekainaren 13ra herriko haurrek hautagaiak aurkeztu ahalko dituzte. "Aitona-amona, bizilaguna edo ezagunen bat izan daiteke. Ez du zertan gertuko pertsona izan behar, haurrentzat maitagarri eta goxoa izatearekin nahiko da," aipatu dute.

Horretarako pertsonaren izena, argazkia, honekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta hautagai proposatzen duen haurren izena bidali beharko dira aisia@ttakun.eus helbidera edo Ttakun KEko Sare Soziale bitartez. Ttakuneko bulegoan ere jasoko dira hautagai proposamenak.

Aukeraketa

Ekainaren 14tik 23ra hautagaiak Ttakun kultur elkarteko sare sozialetan egongo dira



ikusgai. aisia@ttakun.eus helbidera ere bidali ahalko dira bozkak.

Bozkatze epea amaitzean, hautagaiak jasotzen dituzten atsegite eta bozka kopurua zenbatu eta bi irabazle aukeratu dira, bata emakumea eta bestea gizona.

Sari banaketa

Irabazleek txapela eta Goiegi

jatetxean bi pertsonentzako afaria eskuratuko dute.

Sariak San Pedro jaietako haurren txupinaren ostean banatuko dira Udal zaharreko balioan. Ezustek ere izango direla iragarri da.

Antolatzaileek Lasarte-Oriako haurrei haien hautagaiak aurkeztu eta herritarrei 2016ko Patxintxiak bozkatzea gonbidatzen dituzte.



HABE 3 edo EGAKo bigarren deialdia prestatu nahi duzu?

Zatoz LASARTE-ORIAKO UDAL EUSKALTEGIRA!

MATRIKULALDIA:

2016ko ekainaren 1etik 20ra

BULEGO ORDUTEGIA:

09.00-19.00

IKASTARO TRINKOA:

Uztailaren 1etik 29ra

80 ordu, 9:00etatik 13:00etara

Prezioa: 130,50 euro



EUSKARA
EUSKALTEGIA

Tel: 943 36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus - www.lasarte-oria.eus (administrazioa>udala zure zerbitzura)



HERNANI
LANBIDE
HEZIKETA

Gizarte Berrikuntzako LHII - CIPF Innovación Social

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

2016-2017 ikasturtea

AURREMATRIKULAZIOA

Ekainaren 6tik 17ra



HEZIKETA ZIKLOAK

www.hernanilanh.eus

hernanilanhii

ZATOZ
edo
DEITU!!

Hizkuntz Ereduak:
(D) = Euskera, (B) = Mixtoa, (A) = Erdera.



GOI MAILAKO ZIKLOAK (D) ereduak

DIENARRIZKO LANBIDE HEZIKETA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

ESKAINITZA PARTZIALA

Fabrikazio Mekanikoko
diseinua

Animazio soziokulturala
eta turistikoa

Sistema elektroteknikoak
eta automatizatutak

Elementu metalikoen
fabrikazioa
(A-D ereduak)

Mantentze-lan
elektromekanikoak
(D ereduak)

Mekanizazioa
(B-D ereduak)

Instalazio elektrikoak
eta automatikoak
(A ereduak)



Karmelo Labaka 7 - 20120 Hernani (Gipuzkoa) Telf: 943 55 19 58 - Fax: 943 33 05 50

idazkaritza@hernanilanh.eus